

BARTZELONAKO KASUA

Irakurri testua eta erantzun beheko galderari:

Bartzelonak ibilgailuen zirkulazioa mugatu nahi du, kutsadura handia bada.

Bartzelonako Udalean, Airearen Kutsaduraren aurkako Mahaiko adituek kaleetan ibilgailu gutxiago ibiltzea nahi dute. Matrikula-zenbakia bakoitia edo bikoitia bada, horren arabera mugatu nahi dute, baina bakarrik jarriko dute oso kutsatuta dagoen egunetan.

Ekologia, Urbanismo eta Mugikortasuneko arduradunak, Janet Sanz alkateordeak, osteguneko prentsurrekoan adierazi du autoak matrikula-zenbakiaren arabera zirkulatzeko muga proposamen bat dela. Udalak oraindik ez daki neurri hori hartuko duen.

Udalak hirian ibilgailu gutxiago sartzea nahi du, alde batetik, semaforoak erregulatuz eta, bestetik, **VAO** izeneko bideak jarrita. Horrela, garraio publikoari lehentasuna eman nahi dio.

Gainera, kanpokoek nola aparkatu ere arautu nahi du, zer egin hutsik doazen taxiekin, eta kutsadura-ordu nagusietan, goizeko 07.00etatik 11.00ak arte, zamalanak debekatu. Hori guztia kutsadura handia baldin bada.

Udalak datozen hilabeteetan ikusiko du zer egin, eta agian urte-bukaerarako onartuko ditu.

VAO (Vehículos con Alta Ocupación)

ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

Bartzelonan ibilgailuen zirkulazioa mugatzea proposatu dute:

- a. Egun bakoitietan
- b. Kutsadura handiko egunetan
- c. Egun bikoitietan

Bartzelonako Udalak kamioien zamalanak debekatu nahi ditu:

- a. Goizez
- b. Gaez
- c. Arratsaldez

Bartzelonako Udalak taxien zirkulazioa arautu nahi du. Zein taxirena?

- a. Hutsik doazen taxiena
- b. Taxi handiena
- c. Kanpoko taxiena

IRAKURMENAREN ERANTZUNAK

Bartzelonan ibilgailuen zirkulazioa mugatzea proposatu dute...

Kutsadura handiko egunetan

Bartzelonako Udalak kamioien zamalanak debekatu nahi ditu...

Goizez

Bartzelonako Udalak taxien zirkulazioa arautu nahi du. Zein taxirena?

Hutsik doazen taxiena

KOMENTATU

- Bartzelonakoa bezalako kasuak ezagutzen dituzue?
- Zuen ustez, mugatu behar da autoen erabilera hirietan?
- Zuen hirian?
- Testuan agertzen diren neurriak egokiak iruditzen zaizkizue?
- Zuek bestelako zer neurri hartuko zenukete?